



FLORIDAKO ETXEBIZITZAK

- 30 Protekzio Ofizialekoak
- 24 sozialak
- 27 etxe 2 habitaziokoak
- 24 etxe 3 habitaziokoak
- 3 etxe habitazio bakarrekoak

Renfeko estazio ondo horretan egingo dituzte 54 etxebizitza berriak. Obrak berehala hastekoak dira.

Floridan, Protekzioko 54 etxe dijoaz, tren estazio ondoan

■ 30 etxe sozialak dira eta horiek behintzat hernaniarrentzat izango dira ■ Gobernu Batzordeak asteazkenean baimena ematen badu, obrak berehala hasiko dira.

FLORIDA auzoan 54 etxebizitza publiko dijoaz; eta osteguneko Hirigintza Batzordean tratatu zen gaia. Hirigintzak batzordeak tramitea onartu egin zuen, Arabako Lanketa enpresak etxeak egin ditzan. Orain, datorren astean Gobernu

Batzordera joango da gaia, eta han hartuko da azken erabakia. Erabakia hartutakoan berehala hasiko dira tren estazio ondoko etxeak egiten.

5 etxe bloke
Floridan denera bost etxe

bloke egingo dituzte, tren bidearen parean, errenkan. Aurreneko 3 bloketan Babes Ofizialeko 30 etxeak dijoaz, azpian garaje eta guzti. Lau eta bost bloketan, berriz, 24 etxe sozial egingo dituzte eta horiek garaje independenteak izango dituzte. Etxe blokeek

hiruna pisu eta azpi sotano bana izango dituzte.

Floridako etxe publikoak Jaurilaritzak egingo ditu eta apuntatzeko Etxebiden eman behar da izena. Etxebizitza sozialak herrikoentzat izaten dira, beraz, 24 behintzat hernaniarrentzat izango dira. □

Behemendiko azoka Plaza Berrian

BEHEMENDIKO azoka dago gaur Hernanin, Plaza Berrian. Egongo diren baserri produktuak: lore eta landareak, eztikiak, mermeladak, erreposteria eta baserriko ogia, garaiko barazkiak, esnekiak, eta orein haragiarekin egindako produktuak. □

Manifestazioa gaur torturaren kontra

GAUR arratsaldean torturaren kontrako manifestazioa egingo da Bilbon. Hernaniko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak manifestaziora joateko deia egin du eta Hernanitik autobusak ere izango dira. Manifestazioa arratsaldeko 17:30etan da eta autobusa 15:30etan izango da Atsegindegian. □

■ TXIRRINDULARITZA

Proba gaur Hernanin

GAZTETXOEK txirrindulari proba izango dute gaur Hernanin. Arratsaldeko 16:30etan hasiko da Ibarluze poligonon. Lehenengo, alebin mailako neska-mutilak izango dira eta hauek bukatu bezain laster infantil mailakoak. Lasterketan, Hernaniko infantil mailako KAIKU taldeak parte hartuko du. □

■ BOLA

Txapelketa gaur

HERRERAN Euskal Herriko Bola txapelketa jokatu da. Hernaniarrak ere hor izango dira txapel bila. Antonio Miner eta Jose Ugalde izango dira herriko ordezkari (atzo iluntzeko tiraldian besteren bat sartu ezean). Txapela Bizkaian dago, baina faboritoak gipuzkoarrak dira. Hernaniarrik ez da Euskal Herriko txapeldun gelditu, baina, Antonio Miner bigarren izan zen 1993an, Hernanin jokatu zen txapelketa hartan. □

Osiñagako jaiak gaur eta bihar

■ Egitaraua interneten: www.geocities.com/osinagajaietan ■ Bihar herri bazkaria.

EGUERDIKO hamabietan hasiko dira Osiñagako jaiak. Arratsaldean, ekintza ugari: mus txapelketako finala, auzoko arteko sega proba eta

pilota partiduak, bertso saioa (Mendiluze, Urdangarin, Zelaia, Rezola eta Aranburu), eta sagardo eta bakailu dastaketa. 23:00etatik aurrera

dantzaldia izango da Laiotz musika taldearekin. Atsegindegian, "Ipurdi lehiaketa" izango da eta irabazleak "Ipurtargi saria" jasoko du.

Bihar bazkaria
12:00etan Rafa eta Txuriari lore eskaintza, eta eguerdian bazkari herrikoia izango da Harriatsun. □

**Telemar**
Antenak
TeleDonosti
Elkano 13, ☎ 943 55 33 99

Orain, nahi baduzu zerbait berria ikusi dezakezu telebistan.

TELEDONOSTI HERNANIN IKUSI DAITEKE.

Zer egin behar duzu:

1. 45 UHF kanalean sintonizatu behar duzu Teledonosti zure telebistan.
2. Hau egin ondoren, Teledonosti argi ez baduzu ikusten, **ANTENAS TELEMAR**en galdetu. Eraikuntza batzuetan, señaleari hobe zerketa, antena kolektiboan anplifikadore bat jartzea behar

S
A
N
S
O
N
A
T
E
G
I



J
A
T
E
T
X
E
A

Leku Hernanitik
atsegina gertu

SANSONATEGI JATETXEA
Martindegi Auzoa
Tel: 943 33 15 72 - 55 32 60

**Antziola-Motor**
ZERBITZU OFIZIALA



Ford Fiesta
berriarekin
festatik festara.

Etorri eta ikusi

ANTZIOLA AUZOA 12 - Hernani - Tfnoa. 943 55 57 72
Ordutegia: Asteazken 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13



Eli Laburu Astigarrako Alkatea eta Antton Jaime Garraio Diputatua bariante berriko zinta moztzen.

Astigarragako bariantea zabalik

- Astigarraga herrian sartu gabe Oiartzun eta Errenteri aldera joan liteke orain.
- Urumeako barianteko obrak datorren urtean hastea espero du Diputazioak.

ATZO inauguratu zuten Astigarragako bariante berria. Bariantea Astigarragako poligotik Perurenara igotzeko aldapa hasiera arte dioa. Bi sentiduko karril bana ditu eta leku batzuetan bi karril ditu sentidu berean. Antton Jaime Garraio Diputatuak adierazi duenez, sahiesbide berriaren helburua Oiartzun eta Astigarraga bitarteko tramoan trafikoa arintzea da eta egunero 8.000 ibilgailu ibiliko direla espero dute.

Bariante hasieran, rotonda haundi bat egin dute, poligono ondoan. Eta hortik Urumeako bariantea aterako da.

Urumeako bariantea
Hernaniko bariantetik Martutenera beste bariante berri bat dioa: Urumeako bariantea. Martindegiko rotondan hasi eta Martuteneraino joango da eta hor hiru bide izango ditu: bat ospitaletara, bestea Amarara eta hirugarrena Intxaurrondora.

Antton Jaimek Kronikari esandako hitzetan “*barianteko proiektua udara aurretik bukatuta egongo da, urte azkeneko konkurtsora aterako da, eta datorren urtean hasiko dira obrak*”.

Bestalde, Hernaniko bariantetik Andoainera bitarteko zatiari dagokionez, Garraio Diputatuak esan du proiektu bat badagoela, baina, orain aldatzen ari direla. Ez du epeirik aurreratu. □

Kale antzerkia ingurumenaren alde

ASTEAZKENEAN Nazioarteko ingurumen eguna ospatu zen eta horren harira, kale antzerkia antolatu du Hernaniko Udalak. Aurten goan Urumea ibaiaren inguruko zikinkeria hartu dute gaitzat herrian. Kale antzerkia goizeko 09:30etatik eguerdiko 14:00etara izango da Tilosetan, Gudariaren enparantzan, Plaza Berrian eta Biteri Kultur Etxeko plazan. Ordu laurdeneko saioak izango dira. □

✓ TXINPARTA

Rufinoko sagardoa, onena. Urtero bezala, Txinparta taldea Goizuetara joan zen oinez. Bidean, Sagardo Lehiaketa egin zuen, eta Txili tabernatik eramandako Rufinoren sagardoak irabazi zuen. Denera, 30 lagun inguru joan ziren oinez. □



Zatoz zure aisialdiaz goatzera.
Karta, menu berezia, jolas lekua...



Marraka-Enea Baserria
Sta Barbara auzoa 92 -HERNANI
Tel.: 943 556 481-943 554 675



CHULETILLAS AL SARMIENTO
Bazkariak: astelehenetik ostiralera
Afariak: ostegunetik larunbatera

Oialume bidea 34 - Astigarraga
Tel:943 33 05 30 / 660 40 81 09



Gipuzkoarako eskusiban **LAND ROVER** kontzesionario ofiziala. EUROLAN 4 x 4 (VOLVO ondoan) - ☎ **943 33 10 06**



Betiko lekuan, eguneroko ogirik onena banatzen!
ANTZIOLA 3
Tel. 943 55 17 91

**OKINDEGIA
ANTZIOLA**

Denda berri bat zabaldu dugu: Ogia, pastelak, kafea, gozokiak, refrescoak,...

Ordenagailuak, jendeak erabiltzeko.

MONTEBIDEO, 3



■ HITZ BITAN

✓ ERREMONTEA GALARRETAN

Ezkurra-Lizaso/Altuna I-Altuna II-Etxabe. Erremonte jaialdia izango da gaur Galarreta frontoian, 16:00etan hasita. Lau partidu jokatu dira: ZeberioIII-Gaztelu/Matxin-Lander; Ezkurra-Lizaso/Altuna I-Altuna II-Etxabe; Elizalde-Auzmendi/Matxin-Txikuri; Lezea-Mendizabal/Zeberio-Ekiza.

✓ KANTUZ ABESBATZA

Herriari eskerrak. Kantuz Abesbatzak, eskerrak eman nahi dizkie Hernaniko herritarrei, *Tangoka* ikuskizunaren emanaldietan erakutsi duten harrera onagatik. Hasiera batean lau emanaldi eskaintzeko asmoa zuten, baina, herritarren eskaria zela eta, bost emanaldi egin dituzte. Eskerrak emateaz gain, zera jakinarazi nahi dute: momentuz, taldeak dituen konpromisoak direla-eta, ez dutela *Tangokaren* emanaldi gehiago eskainiko. Udara pasa ondoren, herrian izan den eskera dela-eta, emanaldi gehiago eskaintzeko aukera dagoela adierazi dute.

✓ ARANO

Pelota txapelketan apuntatzeko epea zabalik. Aranon pelota txapelketa jokatzeko da herriko *Santio* jaietan, eta izena emateko epea zabalik dago. Txapelketa parejetara izaten da, palaz eta eskuz. Palaz, neska eta mutilentzat da; eta eskuz mutilentzat. Txapelketan jokatzeko derrigorra da federatuta ez egotea. Izena emateko epea ekainaren 8a arte dago zabalik, eta honako puntu hauetan eman liteke: Aranon, Perurenane tabernan; Hernanin, Aralar eta Ereñotzuko Irrintzi tabernan; Goizuetan, Urrutiena tabernan. Bestela, 948-514121 telefonoan ere apuntatu liteke (Maitane). Inskripzioa 12euro da bikoteko.

✓ ERRUGBIA

Alebin eta kadeteek partidua. Gaur partidua jokatu dituzte Hernaniko alebin eta kadeteek. Alebinek Zarautzen kontra (Zarautz, 10:00), eta alebinek Gipuzkoako Ligako partidua jokatu dute Ladaren, Irunen kontra. 11:00etan.

URTEURREN MEZA

Justi Zapiain Aranburu

Justi Zapiain hil zela urtea egin duela-eta, gaurko (larunbata) meza haren oroimenez izango da, arratsaldeko 19:00etan, Juan bataiatzailearen parrokian.

Hernanin 2002ko ekainaren 8an.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶Taxiak: 943 550093
- ▶Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶DYA: 943 464622
- ▶Autobusak: 943 556662
- ▶Anbulatorioa: 943 006666
- ▶Jokalarionimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶Egunez: Bulnes Florida ☎ 943 557738
- ▶Gauetz: Bulnes Florida ☎ 943 557738



Igande eta jai egun guztietan dantzaldia
Igande honetan TRAKETS

19:30etatik aurrera
OIALUME AUZOA - 943 552938



Poltsa, lepoko, pitxi, lurrin eta abar

Paco Loboren poltsa eta monederoak eskusiban. Perla Australiar selekzioa.

Montebideo kalea 1
(EPO eta atletismo pista artean)
- HERNANI -

aukera ezazu zure lanbidea Cebanc-Cdearekin

Informatika

INFORMATIKA-SISTEMEN
ADMINISTRATZIOA
INFORMATIKA-APLIKAZIOEN
GARAPENA

Administratzaioa

ADMINISTRATZIOA ETA FINANTZAK
A ETA D EREDUAK
ADMINISTRATZIO-KUDEAKETA
IDAZKARITZA

Merkataritza eta Marketina

NAZIOARTEKO MERKATARITZA
MERKATARITZA-KUDEAKETA ETA
MARKETINA

Ostalaritza eta Turismoa

JATETXE-ARLOA
SUKALDARITZA (EM)
BIDAI AGENTZIAK
OSTATU-ARLOA
JATETXE ETA TABERNAKOZERBITZUAK (EM)
TURISMO-INFORMAZIO ETA
MERKATARITZA

HASIERA PROFESIONALA
(Bulego eta sukaldeko laguntzailea)

BERTARAINOKO AUTOBUSA
www.cebank.com

Paseo de Berio 50 • 20.018 San Sebastián • Tel.: 943 316 900 • Fax: 943 316 482

Cebanc-Cdea
FORMACION PROFESIONAL • LANBIDE HEZKETA